ayuntamiento de lasarte-oriako udala

# International Student Identity Card

Beherapenak eskaintzen dituzte mundu osoko museoetan, galerietan, kultura-etxeetan eta leku historikoetan sartzeko. Hegazkin, tren, autobus eta itsasontzien lineekin, telekomunikazioko konpainiekin, tokian tokiko saltokiekin eta zerbitzu-hornitzaileekin egindako hitzarmenen oinarria da.

**BALDINTZAK**

***ESTUDIANTE IZATEA***

Instituzio ezagutu batean goi-mailako hezkuntzan (unibertsitatean edo unibertsitateko eskolan) matrikulaturiko eta denbora osoko estudiante egiaztatu guztiak. Hau da, estudianteek gradua, diploma edo goi-mailako ikasketen ziurtagiria eskuratzeko ikasmaila batean inskribaturik egon behar dute, edo unibertsitatean matrikulaturik.

Hizkuntzen ikasleak (ingelesa, frantsesa, alemana, euskara¼), Hizkuntzen Eskola Ofizialean edota euskaltegi publiko edo homologatuetan matrikulatuak.

Udaletako edo ofizialki ezaguturiko beste ikastegi homologatu batzuetako ikasleak; esate baterako: musikako ikasketak, lanbiderako trebatzeko ikasketak.

Bigarren hezkuntzan denbora osoz matrikulaturiko eta 12 urtetik gorako estudianteak.

Ez dago adinaren goiko mugarik ISIC txartela eskuratzeko. Baldin eskatzaileak betetzen baditu hautagaitasunaren baldintzak eta frogatzen badu denbora osoko estudiantea dela, ISIC txartela emateko obligazioa dago. Hala ere, adin handiko eskatzaileak ohartarazi behar dira beherapenen hornitzaile batzuek goiko adin-muga bat jartzen dutela beherapen aplikatzeko. Esate baterako, aire-linea askok ez diete beren hegaldietan beherapenik eskaintzen adin jakin batetik gorako estudianteei.

**ESKABIDEA**

Agiri hauek aurkeztu behar dituzu:

- Nortasunaren agiria edo pasaportea.
- Ikastegiaren ziurtagiria edo unibertsitate bateko edo unibertsitateko eskola bateko nortasun-txartela, data egokia badauka eta estudiantea dela adierazten badu.
- Txartelerako moduko argazki bat.
- 6 euros. Balio-aldia 16 hilabetekoa du.

Non eska daitekeen: **Lasarte-Oriako Udalaren Gazteak Informatzeko Bulegoa.**

Proporcionan descuentos en la entrada a museos, galerías, centros culturales y lugares históricos en todo el mundo. Es la base de acuerdos con líneas aéreas, de ferrocarril, de autobuses y de navegación, compañías de telecomunicaciones, comercios locales y proveedores de servicios.

**REQUISITOS**

***SER ESTUDIANTES***

Todos los estudiantes a tiempo completo acreditados matriculados en educación superior (universidad o escuela universitaria) en una institución reconocida. Es decir, los estudiantes deben estar inscritos en un curso para la obtención de un grado, diploma o certificado de estudios superiores, o estudiantes matriculados en Universidades.

Estudiantes de idiomas (inglés, francés, alemán, euskera...) matriculados en la Escuela Oficial de Idiomas o en Euskaltegis públicos u homologados.

Estudiantes en otros centros homologados, municipales u oficialmente reconocidos, por ejemplo: estudios de música, capacitaciones profesionales.

Estudiantes matriculados en educación secundaria a tiempo completo y edad superior a 12 años.

No existe límite superior de edad para obtener el ISIC. Si el solicitante cumple los requisitos de elegibilidad y prueba su estado de estudiante a tiempo completo hay obligación de emitir el ISIC. Sin embargo hay que indicar a los solicitantes de más edad que algunos proveedores de descuentos tienen un límite superior para aplicar el descuento. En concreto muchas líneas aéreas no ofrecen descuentos en sus vuelos a estudiantes por encima de determinada edad.

**SOLICITUD**

Tienes que presentar:
-DNI o pasaporte.
-Certificado del centro de estudios o carnet de identidad de una universidad o escuela universitaria si tiene la fecha adecuada e indica el estado de estudiante.
-Una fotografía tamaño carnet.
-6 euros. Su validez es de 16 meses.
Lugares donde se puede solicitar: **Oficina Municipal de Información Juvenil de Lasarte-Oria.**

# enplegua / empleo

## Lan bila zabiltza?

Goiko galderari baietz erantzun badiozu, hemen duzu lantokia lortzeko aukera on bat. Gazteentzako Informazioaren Udal Bulegoan inon aurki dezakezun enplegu-eskaintzarik handiena dugu. Edozer bilatzen duzula ere, zure prestakuntza eta trebakuntza edozein delarik ere, guk lagun diezazukegu lantokia aurkitzen. Enplegu pribatua zein enplegu publikoa, prestakuntza eta esperientzia handiko lanpostuak nahiz prestakuntza beharrik gabeko lanak. Seguru lagun diezazukegula. Horretarako, nahikoa duzu gure Bulegora etortzea eta kontsultatzea eskueran jarriko dizkizugun dosierrak, zabalak eta astero berritzen ditugunak. Eta, noski, zerbitzu hori guztiz dohainik da. Ez, gero, aukera galdu!

## ¿Buscas trabajo?

Si has respondido sí a la pregunta de arriba, aquí tienes una buena oportunidad para conseguirlo. En la Oficina Municipal de Información Juvenil tenemos la mayor oferta de empleo que puedes encontrar. Busques lo que busques, sea cual sea tu formación y preparación, nosotros podemos ayudarte a encontrar empleo. Desde empleo privado a empleo público, desde puestos de alta cualificación y experiencia hasta trabajos sin cualificar. Seguro que podemos ayudarte. Lo único que debes hacer, es pasarte por nuestra Oficina y consulta los amplios dossieres que ponemos a tu disposición y que renovamos semanalmente. Y, por supuesto, este es un servicio absolutamente gratuito. No te lo pierdas.

# sarea / red

## Gazteentzako Dokumentazioren eta Informazioaren Euskadiko Sarea

**Lasarte-Oriako Gazteentzako Informazioaren Udal Bulegoa, Gazteentzako Dokumentazioaren eta Informazioaren Euskadiko Sarearen** barruan dagoen doako zerbitzu publikoa da, Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, Euskal Autonomia Erkidegoko sarea osatzen duten berrogeita hamar zerbitzu inguruaren zati dena.
Gure helburua, gazteentzako interesgarri izan daitekeen eta lanarekin, heziketarekin, aisialdiarekin, astialdiarekin eta abarrekin zerikusia duen informazio oro gazteengana hurbilaraztea da.
Informazio hori, Kulturetxeko bigarren solairuan dagoen bulegoan jendea zuzenean atenditzuz, telefonoz eta posta elektroniko bidez zabaltzen da. Horrez gain, norberak kontsultak egiteko zerbitzua ere badu, gazteei gehien interesatzen zaizkien gaiak lantzeko aukera ematen duena.
Gazteentzako Dokumentazioaren eta Informazioaren Euskadiko Sarearen web gunea honako hau da: www.gazteinformazioa.net

## Red de Información y Documentación Juvenil de Euskadi

La **Oficina Municipal de Información Juvenil de Lasarte-Oria** es un servicio público y gratuito que pertenece a la **Red de Información y Documentación Juvenil de Euskadi** y que, en colaboración con el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Gipuzkoa, forma parte de los, aproximadamente, cincuenta servicios que completan la red en la Comunidad Autónoma Vasca.
Nuestra finalidad es acercar a las personas jóvenes toda aquella información que pueda ser de su interés y que tenga que ver con el mundo del trabajo, la educación, el ocio, tiempo libre...
Dicha información se difunde mediante la atención directa al público en la oficina situada en la segunda planta de la Casa de Cultura Manuel Lekuona, y a través de vía telefónica o por correo electrónico. Además, dispone de un servicio de autoconsulta en el que las personas jóvenes pueden trabajar directamente los temas que más les interesan.
El sitio web de la Red de Información y Documentación Juvenil de Euskadi es www.gazteinformazioa.net

i gazte informazioa

# ordutegiak / horarios

gazteen informaziorako udal bulegoa
oficina municipal de información juvenil

Astelehenetik ostiralera Lunes a viernes 11:00-13:00/17:00-20:00


**Casa de Cultura MANUEL LEKUONA Kultur Etxea**
Geltoki 18 - 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 37 61 81/91 - Fax: 943 37 61 92
gazteinfo@lasarte-oria.org
www.lasarte-oria.org



gazte informazioa
# orrigorri
no. 77. zk.
enero/febrero/urtarrila/otsaila 2004




Casa de Cultura Manuel Lekuona Kultur Etxea
Ayuntamiento de Lasarte-Oriako Udala

lasarte-oria
www.lasarte-oria.org

casa de cultura manuel lekuona kultur etxea

ayuntamiento de lasarte-oria udala

# bekak / becas

## SOCRATES-COMENIUS 2 PROGRAMAREN LAGUNTZAK
## AYUDAS DEL PROGRAMA SÓCRATES-COMENIUS 2

**Eusko Jaularitza**
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Donostia kalea, 1
01010 Vitoria-Gasteiz
Telefonoa: 945 018000

**Gobierno Vasco**
Departamento de Educación, Universidades e Investigación
Calle Donostia, 1
01010 Vitoria-Gasteiz
Teléfono: 945 018000

**Baldint.:**
EBko hiritarra izatea eta Espainian bizitzea. Europako Batasuneko hizkuntza ofizial baten filologia-espezialitateko, Itzulpengintza eta Interpretazioko edo Magisterioko ikasketak egiten egotea.

**Requisitos:**
Ser ciudadano de al UE, residente en España y estar realizando Filología, traducción e interpretación o magisterio en la especialidad de filología de un idioma oficial de la Unión Europea.

**Edukia:**
Bekaren helburua etorkizuneko hizkuntza-irakasleak hobetzea da. Laguntza hau eskaintzen da, Europako beste herrialde batzuetan hizkuntzalaritzako laguntzaile gisa irakaskuntza-praktikak egin ditzaten.

**Contenido:**
La beca tiene como objetivo el perfeccionamiento del futuro profesorado de idiomas. Se concede la ayuda para que realicen un periodo de prácticas docentes en otros países europeos como Ayudantes lingüísticos.

**Epea:**
Otsailak 1.

**Plazo:**
1 febrero.

## CAJA MADRID FUNDAZIOAOREN 55 BEKA EUROPAKO BATASUNEAN ETA AEB-N GRADUATU ONDOKO PRESTAKUNTZA EGITEKO
## 55 BECAS PARA FORMACIÓN DE POSTGRADO EN LA UE Y EEUU DE LA FUNDACION CAJA MADRID

**Fundación Caja Madrid**
Departamento de becas
San Martín kalea, 1
28013 Madrid
Tfnoa.: 913792772

**Fundación Caja Madrid**
Departamento de becas
C/ San Martín, 1
28013 Madrid
Tfno.: 913792772

**Baldintzak:**
- Goi-mailako titulua.
- Bekak helburu dituen ikasketak egiteko herrialdeko hizkuntza ahoz eta idatziz ondo ezagutzea.

**Requisitos:**
- Título superior.
- Buen conocimiento, escrito y hablado del idioma del país en el que se van a desarrollar los estudios para los que solicitan la beca.

**Iraupena:**
Bekaz gozatzeko aldia ikasketen iraupenaren araberakoa izango da. Hauek normalean ikasturte arrunt bat iraungo dute.

**Duración:**
El período de disfrute de la Beca estará en función de la duración de los estudios, que normalmente, será de un curso académico ordinario.

**Diru-kopurua:**
- Joan-etorriko hegazkin-biletea.
- Unibertsitateko edo Goi-mailako Ikerketa Zentroko matrikula.
- 1.000,00 euro garbi hilean.
- Gaixotasun eta istripuetako asegurua.

**Dotación:**
- Billete de ida y vuelta en avión.
- Matrícula en la Universidad o Centro Superior de Investigación.
- 1.000,00 euros netos mensuales.
- Seguro de enfermedad y accidentes.

**Edukia:**
Caja Madrid Fundazioak lizentziatu eta goi-mailako tituludunentzat hornitu dituen beka hauek dira Europako Batasuneko (EB) eta Amerikako Estatu Batuetako (AEB) unibertsitateetan ekonomia, soziologia, politika-zientziak, zuzenbide politikoa eta zuzenbide konstituzionalari dagozkien gaietan graduatu ondoko prestakuntza jasotzeko bekak.

**Contenido:**
La Fundación Caja Madrid dota este conjunto de becas para licenciados y titulados superiores, destinadas a la ampliación de estudios de cualquier universidad de la UE (excepto España) o de Estados Unidos, en Economía, Sociología, Ciencias Políticas, Derecho Político y Constitucional.

**Epea:**
2004-03-05

**Plazo:**
05-03-2004

# ikastaroak / cursos

## 12TIK 15 URTERA BITARTEKO GAZTEEKIN ESKULANAK EGITEKO IKASTAROA
## CURSO DE MANUALIDADES CON JÓVENES DE 12-15 AÑOS

**Hezkide Eskola**
Heriz Pasalekua
20080 Donostia
Tfno: 943 311474 / 311475
Fax: 943 311476

**Hezkide Eskola**
Paseo de Heriz
20080 San Sebastián
Tfno: 943 311474 / 311475
Fax: 943 311476

**Baldintzak:**
Ikastaro hau gazte eta haurren hezleei zuzenduta dago bate ere: astialdiko begirale eta zuzendariak, gurasoak, etab. Halere, gaiarekiko interesa duen edozein pertsonak egin dezake.

**Requisitos:**
Este curso principalmente va dirigido a educadores/as de jóvenes y niñ@s: monitores/as y directores/as de Tiempo Libre, profesores/as, padres y madres, etc. De todos modos, puede realizarlo cualquier persona que esté interesada en el tema.

**Iraupena:**
16 ordu. Martxoaren 23an, 25ean eta 30ean eta apirilaren 1ean.

**Duración:**
16 horas. 23, 25, y 30 de marzo y 1 de abril.

**Edukia:**
Gazteen hezleek maiz eskulan berberak errepikatzen ditugu urtetik urtera. Ikastaro honen bidez alde batetik eskulanak garatzeko ideia berriak sortu eta, bestetik, parte-hartzaile bakoitzaren sorkuntza-gaitasuna azaleratu nahi da. Eskulanak adierazpen-iturri bat dira eta pertsonen arteko komunikazioa ahalbidetzen dute.

**Contenido:**
Es frecuente que l@s educadores/as de jóvenes repitamos las mismas manualidades año tras año. Por medio de este curso se pretende, por un lado generar nuevas ideas para el desarrollo de manualidades y por otro, descubrir la capacidad creativa de cada participante. Las manualidades son una fuente de expresión y facilitadoras de comunicación interpersonal.

**Epea:**
2004-03-15.

**Plazo:**
15-03-2004

**Prezioa:**
60,00 euro.

**Precio:**
60,00 euros.

## ARETO-DANTZAKO IKASTAROAK
## CURSOS DE BAILES DE SALÓN

**Manuel Lekuona Kultur Etxea**
Tlf.: 943 376181
gazteinfo@lasarte-oria.org

**Casa de Cultura Manuel Lekuona**
Tlf.: 943 376181
gazteinfo@lasarte-oria.org

**HASTAPENA**
(urtarrilaren 27tik ekainaren 22ra)
Asteartetan, 19:00etatik 21:00etara.

**INICIACIÓN**
(27 enero - 22 junio)
Martes (19:00 a 21:00 h.).

**AURRERATUA**
(urtarrilaren 22tik ekainaren 24ra)
Ostegunetan, 19:00etatik 21:00etara.

**AVANZADO**
(22 enero - 24 junio)
Jueves (19:00 a 21:00 h.).

**Matrikulatzeko epeak:**
2004ko urtarrilaren 7tik 16ra.

**Plazos de matriculación:**
7 al 16 de enero de 2004.

**Izena emateko lekua:**
Gazteentzako Informaziorako Udal Bulegoa (Manuel Lekuona Kultura Etxeko bigarren solairuan), astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

**Lugar de inscripción:**
Oficina Municipal de Información Juvenil (Segunda planta de la Casa de Cultura Manuel Lekuona) de lunes a viernes de 11:00 a 13:00 h. y de 17:00 a 20:00 h.

**Matrikula-sariak:**
Gazte errold. (15-30 urte): 60 euro.
Heldu errold. ( >30 urte): 90 euro.
Erroldatu gabeak: 150 euro.

**Matrículas:**
Jóvenes (15-30 años) emp.: 60 euros.
Adultos ( >30 años) emp.: 90 euros.
No empadronados: 150 euros.

# lehiaketak / concursos

## DONOSTIAKO INAUTERIAK 2004 KARTEL-LEHIAKETA
## CONCURSO DE CARTELES CARNAVALES DONOSTIARRAS 2004

**Kultur eta Turismo Ekintzetxea**
Donostiako Udala
Reina Regente 3
20003 Donostia-San Sebastián
Tfnoa.: 943 48 11 66

**Centro de Atracción y Turismo**
Ayuntamiento de San Sebastián
Reina Regente 3
20003 Donostia-San Sebastián
Tfno.: 943 48 11 66

**OINARRIAK**

1.- Jatorrizko lanen kopuruari inolako mugarik ezarri ez zaionez gero, artistek nahi beste lan aurkez dezakete.

2.- Argazkiz, diapositibaz, pinturaz, akuarelaz, collagez eta beste ezein teknikaz eginiko jatorrizko lanak onartuko dira, 62 X 88 cm-ko formatukoak izanez gero. Kartelak bertikala nahiz horizontala aurkez dezakete eta euskarri zurrun baten gainean aurkeztuko da, toles ez dadin.

3.- Kartelean ondokoa idatziko da: "Donostiako Iñauteriak 2004 Carnavales donostiarras. Otsailak 19-23 febrero. Donostia-San Sebastián" idazpuruak nola kokatu egileak berak erabakiko du.

4.- Mota bakoitzean 601,01 euro sari eta irabazle-agiri bakarrak emango dira. Sariak eman gabe ere utz litezke epaimahaikoen iritziz aurkezturiko lanek nahikoa kalitaterik izan ezean.

5.- KTE kartel sarituen jabea izango da eta nahi beste aldiz erabili ahal izango ditu egileei bestelako saririk ordaindu gabe.

6.- Jatorrizko lanak Kultura eta Turismo Ekintzetxean 2004ko urtarrilaren 10a baino lehenago utzi beharko dira. KTEk berariaz izendaturiko epaimahaikideen emaitza komunikabideen bidez aditzera emango da.

7.- Jatorrizko lanen bat Kultura eta Turismo Ekintzetxean utzitako lagunak gordekin bat jasoko du. Ezinbestekoa izango du egiaztagiri hori jatorrizkoa itzultzeko eskatzerakoan. Jatorrizko lanok urtarrilaeren 31ra arte jaso ahal izango dira. Egun horretatik aurrera ez da inolako jatorrizkorik jasotzerik izango.

8.- Kultura eta Turismo Ekintzetxeak ez du bere gain inongo erantzukizunik hartuko baldintza desegokietan (adibidez, euskarri malguan aurkeztea, babes-geruza gardenik ez erama-tea...) igorritako jatorrizko lanen bat kaltetuz gero.

9.- Lehiaketan esku hartzen duenak honako oinarri hauek guztiak erabat onartu beharko ditu.

10.- Zalantzarik izatekotan, lehiaketaren antolatzaileak berak interpretatuko ditu oinarriok.

**BASES:**

1.- Podrán presentar sus obras cuantos artistas lo deseen sin limitación en cuanto al número de originales.

2.- Se admitirán originales realizados en fotografía, pintura, acuarela, colage,... siempre que se sujeten al formato de 62 x 88 cms. El cartel podrá ser vertical u horizontal y se presentará sobre cualquier superficie compacta y debidamente protegido. evitándose de esta manera su deterioro.

3.- El cartel deberá contener la inscripción: "Donostiako Iñauteriak 2004 Carnavales donostiarras. Otsailak 19-23 febrero. Donostia-San Sebastián" distribuida según elección de su autor.

4.- Se establece un único premio de 601,01 euros para cada modalidad. Los premios podrán quedar desiertos si, a juicio del Jurado, las obras presentadas no reunieesen la calidad requerida.

5.- Los carteles ganadores quedarán en propiedad del CAT que podrá reproducirlos cuantas veces desee sin necesidad de compensación adicional a los autores.

6.- Los originales deberán entregarse en el Centro de Atracción y Turismo estableciéndose como último día de entrega el 10 de enero de 2004. El fallo del jurado, nombrado al efecto por el CAT, se publicará en los medios de comunicación.

7.- La persona que entregue el original en el Centro de Atracción y Turismo recibirá un justificante de la misma: la presentación del justificante será preceptiva a la hora de exigir la devolución del original. El plazo de recogida de originales se desarrollará hasta el 31 de enero del año en curso. Con posterioridad no podrá retirarse ningún original.

8.- El Centro de Atracción y Turismo no se hace responsable del posible deterioro de aquellos carteles presentados en condiciones inadecuadas (cabe citar la presentación sobre base no compacta, la falta de película protectora sobre el original,...)

9.- La participación en el concurso supone la total aceptación de las presentes bases.

10.- La interpretación de las presentes bases corresponderá, en caso de duda, al organizador del concurso.

casa de cultura manuel lekuona kultur etxea